


GUZTIOK gara garrantzitsuak

Andereñoak ikasgelako zereginak banatu dizkie ikasleei. Batzuei arbela garbitzea dagokie; beste batzuei, paperontzia hustea; beste batzuei, ordenagailua eta ikasgelako argiak itzaltzea; beste batzuei, arkatzak banatzea...



Haur guztiak pozik daude egokitu zaien zereginarekin; guztiak, Patxi izan ezik. Hark uste du bere lana ez dela garrantzitsua. Idazkaritzara joatea egokitu zaio, ekitaldi-aretoko giltza jasotzera, ostiraletan ikasturte-amaierako antzezlanaren entseatu ahal izateko.

Ostirala da, eta Patxi ez dator giltzarekin. Andereñoa eta ikaskideak harrituta daude. Zalaparta pixka bat sortu da, denak antzezlanaren entseatzeko irrikaz daudelako, eta ekitaldi-aretora sartzeko zain daudelako.



—Gora! —egin dute oihu, eta txaloka hasi dira Patxik giltza badakarrela ikusi dutenean.

—Zergatik zatoz berandu? —galdetu dio andereñoak.

—Idazkaria jolas-orduan erori den haur bat sendatzen ari zen, eta zain egon behar izan dut —azaldu du Patxik.

Ikaskideen aurpegia ikustean, Patxi konturatu da bere zeregina ere garrantzitsua eta beharrezkoa dela.

1 Markatu erantzun egokia kasu bakoitzean.

— Pozik zegoen Patxi bere zereginarekin?

☐ Bai ☐ Ez

— Zer egin dute ikaskideek Patxi ikustean?

☐ Txalo egin diote. ☐ Haserretu egin dira.

2 Azaldu esaldi batekin zer ikasi duen Patxik.